

## ERTZETIK

Bitzaren arlo askotako barne hustuketa, hausnarketa musikatua eta umorea izango dira emanaldiaren kolore nagusiak. Kritikoa izango da. Ertzeko begirada izango du emanaldiak, ertzekoa geografiko eta soziologikoki, euskal umore hegemonikotik ihes egingo duena.

Emanaldi diziplina anitzekoa izango da, sortzaileek gauza ezberdinak probatuko dituzte diziplinen arteko mugak hautsiz.

Antzezpena, musika eta bertsoa Oihane Perea bertsolaria, Izar Mendiguren bertsolaria, Mikel Goikuria musikaria eta Miren Iñake Miguel musikariaren eskutik.

